


Hamar gaztetik zortzik uste dute gazteei eragingo dien edozein ebazpen publiko onartu aurretik kontsultatu behar zaiela

Gazteek beren ahotsa entzunarazteko ekintzarik garrantzitsuenak manifestaldi publikoetan parte hartzea, eskabideak sinatzea eta eztabaidagune edo foroetan parte hartzea direla uste dute. Izan ere, ekintza horietan parte hartu dute gehien.

Gazteen Euskal Behatokiak herritarren parte-hartzeari eta Europar Batasunari buruzko ikerketa bat egin zuen 2008an. Horretarako telefono bidez egin zitzairen galdetegia EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteei.

Gazteei gizarteko kide gisa modurik aktiboenean parte hartzeko ekintza jakin batzuk lagungarri diren ala ez galdetutakoan, %83,5ek erantzun dute gazteei eragingo dien edozein ebazpen publiko onartu aurretik kontsultatzea lagungarria dela. Halaber, %77,0en iritziz, lagungarria da boluntario lana sustatzeko programa gehiago egotea eta %65,2en ustez, eskoletan herritar izaerari buruzko derrigorrezko hezkuntza-programa sartzeari. Alabaina, %20,6 baino ez daude botua emateko adina jaistearen alde.




Iturria: Herritarren parte-hartzea eta Europar Batasuna 2008 ikerlana, Gazteen Euskal Behatokia

Gazteek beren ahotsa entzunarazteko garrantzitsuen gisa jotzen duten ekintza politikoari dagokionez, %26,5ek uste dute arduradun politikoekiko eztabaidetan parte hartzea dela; %15,7k uste dute GKE bateko kide izatea dela; %14,7k manifestaldi batera joatea dela; eta %10,5ek diote eskabide bat sinatzea dela. Gazteentzat, garrantzi gutxienerako ekintza politikoak alderdi politiko bateko kide izatea (%8,4) eta sindikatu bateko kide izatea (%9,9) dira. Azpimarratu behar da gazteen %12,2k ez dakitela zer erantzun edo ez dutela galdera hau erantzun nahi izan. %2k bakarrik uste dute ekintza politiko hauetako batek ere ez duela bermatzen beren iritzia entzungo denik.

Gazteek beren hiri edo herriko jarduera politikoari eta gaurkotasun-gertakariei buruz duten interesa hizpide, %59,3 interesatuta daude. %53,6 beren herrialdekoekin interesatuta daude eta Europar Batasunekoekin, %29,0.

Botua emateko adina duten Euskadiko gazteen %68,6k botua eman dute aurreko hiru urteetan. %30,2k diote ez dutela boturik eman.

Azken urtean politikan inplikatzeko moduetako bakoitzean parte hartzeari buruz, gazte kopururik handienak manifestaldi publikoetara joan izana aipatu du (%45,6k). %20,9k eskabide bat sinatu izana aitortu dute eta %17,6k on-line eztabaidagune edo foro batean eman dute beren ikuspuntua ezagutzera. Gazteek honako modu hauetan parte hartu dute gutxien: GKE batean lan eginda (%8,4k), sindikatu bateko kidea izanda edo bertan parte hartuta (%5,4) eta alderdi politiko baterako edo ekintza talde baterako lan eginda (%3,4).



Iturria: Herritarren parte-hartzea eta Europar Batasuna 2008 ikerlana, Gazteen Euskal Behatokia

Erlazionatutako datuak kontsultatzeko:

15 eta 29 urte bitarteko gazteek herritar gisa parte-hartzeari buruzko adierazle estatistikoak

Erlazionaturiko estekak:

Gazteen Euskal Behatokiaren adierazle estatistikoaren sistema